



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
124. zka 3. etapa GR-283	Arantzazu-Otzaurte/2017-5-27/28

Adiskide mendizaleok:

“Idiazabalgo Gazta” ibilbidearen hirugarren etapa. “Arantzazu” ingurutik Urbia aldera joko dugu, hainbat bidetatik irits gaitezkeelarik bertara, batzuk besteak baino ezagunagoak. Agian hain ezaguna ez den ibilbide batekin harrituko zaituztegu. Urbia paraje berezi eta paregabea da. Arbelaitzetik Aizkorriaraino dagoen ikuspegia berdingabea da. Han goian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gailurrik garaienak daude, 1.551m-ko sabaiarekin: Aitzuri.

Urbian Arantzazuko Andre Mariaren basiliza dago, oin angeluzuzeneko eraikina bi isurkiko teilatuarekin. Ama Birjinaren irudia Julio Beobide eskultoreak egin da eta Ignacio Zuloagak “Andre Maria Doloretakoa” margolana eman zuen, gaur egun Arantzazun dagoena. Anekdotak gisa esan behar da 35.844 pezetako kostua izan zuela. Inaugurazioa 1924ko irailaren 28an izan zen, Iruñeko Mateo Mujika gotzaina bertan zela. Egund hartan bertan “aterpe-ostatuaren lehen harria” ipini zen.

Ziur asko guztiok igaroko ginen eta bisitatuko genuen behin baino gehiagotan txoko sonatu hau. Horietako bat, oso berezia, 2010eko otsailaren 21ean izan zen, Euskal Herriko Zeharkaldi Handiaren 11. etapan izan zen, Arantzazu eta Otzaurte artean, elurte oparo baten ondoren. Ziur asko gogoan izango duzue, askorentzat esperientzia ahaztezina izan baitzen.

Zelaitik Ollantzuko etxoletera igoko gara, “Aizkorri mendien” ikuspegi zoragarriaz gozatuz paraje honetatik. Hemendik aurrera Zelaibizkar mendi-lepoa bilatuko dugu, eta gero San Adriango igarobide ospetsurantz jaisten hasiko gara, non baitago San Adrian edo Sandratei basiliza ospetsua. Han, sarrerako ate gainean, aurrealdean “1954AA” idazkuna agertzen da, azken zaharberritzea egin zeneko urtea. XVI. mendeko lehen hilabeteetan, basiliza hartan bataiatu zuten Felipe Lazkano (Gipuzkoako Tertzioen koronela), aitabitxi eta amabitxi Filipe Ederria eta Joana Eroa zirela, senar-emazteak Flandesetik zetozela handik igaro baitziren.

Handik Mikeleteen Aterpetxera jaitsi, Beundako korta edo sarroira, eta laster iritsiko gara geure helmugara: Otzaurteko mendatera (685m). Hemen beste basiliza bat dago, Otzaurteko Andre Mariarena. Barruan gurutze handi bat dago eta San Adrian eta Ama Birjinaren irudiak, bere izeneko basiliza-haitzulotik hara eramanak. Eragilea Zegamako parrokoa, Andres Oiartzabal, izan zen (1955).

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Arantzazu-Otzaurte

Beharrezko denbora	5,05 ordu
Goranzko desnibel metatua	887 metro
Beharrezko desnibel metatua	973 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	16.585 metro
 Inguru	1
 Orientazioa	1
 Joan-etorria	1
 Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 Bus geralekua) eta Pio XII.aren plaza (24/27 Bus geralek.)
Aurkezteko ordua	07:15 (Bilbo plaza) eta 07:20 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	07:20 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Otzaurteko Benta jatetxea.
Prezioa	33 euro

Izena emateko azken eguna: 2017-5-25eko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.
b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

